

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 3306

*EBAZPENA, 2023ko ekainaren 27koa, Kanpo Harremanetarako zuzendariarena, Quebec Eskualde Estrategikoarekiko 2023-2024rako lankidetza teknikoaren proiektuetarako laguntzen deialdia ebazten duena.*

Martxoaren 26ko 47/2019 Dekretuaren bidez, Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekiko lankidetza teknikoko proiektuetarako laguntzak arautu ziren.

Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiaren 2023ko otsailaren 17ko ebazpenaren bidez, Quebec Eskualde Estrategiarekiko 2023-2024rako lankidetza teknikoaren proiektuetarako laguntzak deitu ziren.

Deialdia egiten duen ebazpen horren 7. artikuluan, dirulaguntzak aztertzeiko Ebaluazio Batzordea izendatu zen. Bada, Batzorde horrek egindako proposamena ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— I. eranskinean azaltzen den erakundeak aurkeztutako eskabidea baztertea, eranskin horretan azaltzen diren arrazoiengatik.

Bigarrena.— Quebec Eskualde Estrategikoarekiko 2023-2024rako lankidetza teknikoaren proiektuetarako laguntzak esleitzea II. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei, aipatutako eranskinean zehazten diren zenbatekoengatik.

Hirugarrena.— Laguntzak ukatzea III. eranskinean zerrendatzen den erakundeari, eranskin horretan adierazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.— Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen; beraz, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Europar Batasunaren eta Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, horrela ezartzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 27a.

Kanpo Harremanetarako zuzendaria,  
CONCEPCIÓN QUINTANA AGUIRRE.

## I. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKABIDEA

| Zk. | Erakundea               | Proiektuaren izena                         | Baztertzeko arrazoia                                                |
|-----|-------------------------|--------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|
| 1   | Manuel María Gorostiaga | Euskal Herri-Quebec...sar dadila Kalabazan | Ez izatea pertsona juridiko pribatua<br>(47/2019 Dekretua, 2. art.) |

## II. ERANSKINA

## ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

| Zk. | Erakundea                                                        | Proiektuaren izena                                                                | Dirulaguntza (eurotan) |
|-----|------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
| 2   | Deustuko Elizako Unibertsitatea                                  | Deep Brain: Deep Learning approaches for brain diseases prediction                | 5.000                  |
| 3   | Biomaterialetako Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa, CIC biomaGUNE | Colaboración entre Euskadi-Quebec para la organización de la Gold Conference 2025 | 5.000                  |
| 5   | Zukan Kultur Elkartea                                            | Proyecto cooperación Quebec-Euskadi Trío Zukan & Émilie Girard-Charest            | 5.000                  |

## III. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKABIDEA

| Zk. | Erakundea                             | Proiektuaren izena                             | Puntuazioa guztira | Ukatzeko arrazoia                                       |
|-----|---------------------------------------|------------------------------------------------|--------------------|---------------------------------------------------------|
| 4   | Fulgencio Pimentel, Sozietate Mugatua | Julie Doucet edición de obra y visita a España | 40                 | Puntuazioa ez da nahikoa (47/2019 Dekretua, 10.3. art.) |